

2008ko urtarrila

67. zenbakia



Biluztu egin gara

TXORIERRIKO IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

KALITATE ONEKO IRAKASKUNTZA ETXETIK HUR



Larrabetsuako Herri Ikastetxea

Tel.: 944 558 172

Faxa: 944 558 172



Zamudioako Herri Ikastetxea

Tel.: 944 520 826

Faxa: 944 521 349



"Txoriñori" R111 (Lorrio)

Tel.: 944 549 258

Faxa: 944 549 262



"Gorostegui" Herri Ikastetxea

Herri Ikastetxea (Gorostegui)

Tel.: 944 531 030

Faxa: 944 531 030



Deriako Herri Ikastetxea

Tel.: 944 541 216

Faxa: 944 541 216



Lendakuko Herri Ikastetxea

Tel.: 944 55 119

Faxa: 944 555 161

MATRIKULA APIRILEAN

Aikor!

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarte Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: aikortxori@yahoo.es
www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin, Jon Goikouria, Eder Merino eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Toti Martínez de Lezea, Iñaki Bilbao, Asier Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Juanxu Bilbao, Oihana Astobieta, Arroeta Mendi Taldea eta Txorierriko AEKekintza taldea

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Abutegei

Banaketa: Aikor!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.300

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.




EUSKO JAURLARITZA
ADMINISTRATIO PUBLIKOAREN ARLOA

2008-11-05/2008-11-05


Ministerio Publikoaren Arloa



EFA
DFB



diruz lagundutako aldizkaria



20 Loiuko elizako organoa



22 Eneko Atxa



26 Txorierriko Gazte Koordinadorea




14 Joana Flaviano



12 Gemma Martínez

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Gutunak 6Laburrak eta albisteak
12Gurean izan da... Gemma Martínez 13Euskarazko mokaduak 14Joana Flaviano 20Loiuko elizako organoa
22Eneko Atxa 24Gulu eta Patxi, Sahararen aldeko maratoiaren parte-hartzaileak 26Txorierriko Gazte Koordinadorea 28Baserri mundua 29Teknologia
30Musika 31Txorierri ezagutu 32Sukaldaritza
33Denborapasa 34Agenda



J. ELORRIAGA

Elorriaga, J. Elorriaga, J. Elorriaga

Elorriaga, J.
Elorriaga, J. Elorriaga, J. Elorriaga



Miguel Angel Delgado gaita musikari

070 700 700

94 452 34 47



Elorriaga, J. Elorriaga, J. Elorriaga

Gabonen ostikada



JON GOIKOURIA
(Kazetaritza ikaslea)

Gabonek heldu bezain pronto egin dute ospa. Koldar halakoak! Eskerak haiekin batera turroiek, bazkari eta afari kilometrikoek eta argiz beteriko kale epileptikoek ere hanka egin dutela. Berriro ere martxan jarri gara. Errealitatera bueltatu gara; 'normaltasun' egoerara. Hamaika hilabetez bada ere, merezitako atsedendia emango diegu Olentzero eta bere konpetentziari, oporrek beraiek ostikada ederra eman digutelako.

Olentzero gizajoa. Urteen pisua ez du pairatzen, baina, aldi berean, egia da urteek aurrera egin ahala gorriak ikusten dituela geure heroiak. Gero eta zailago du bere lanbidea: alde batetik, opari originalak eta erabilgarriak topatzea gero eta gaitzagoa da, erosteko hainbeste toki baitaude. Eta horren ondorioz, astoarekin batera zoratzen hasia da dagoeneko. Beste alde batetik, arerio berriekin gero eta sarriago egiten du topo: horren adibidea Meltxor, Gaspar eta Baltasar hirukotea da. Gainera, azken urteotan Papa Noel ere hasi da protagonismoa hartzen etxe askotan. Txorieritar batek baino gehiagok gorritz jantzitako potoloari ondo deritzola dirudi, balkoi ugaritan eskalatzen uzten baitiote neguko oporretan. Horren aurrean, Olentzero ez da gelditu eta harrez geroztik kontraerasoan dabil. Eskalada kurtsuak bukatu eta praktikak egin ditu aurrean pisu, etxe zein baserri askotako balkoi eta leihoetan.

Bestalde, Gabonen amaierak urtea zero-tik hastea dakar. Oporretan egin diren hitz-emate guztiak betetzeko garaia dugu: tabakoa utzi, kilotxo batzuk galdu eta ikaskete-

tan dabilzan pertsona horiek seriotasun handiagoz jardutea, besteak beste. Urtarrila gezurren hilabetea ere bada: hasierako egunetan gogor ekiten zaio gimnasia joateari, dietak egiteari edo tabako kutxatxoak ezkutatzeari. Baina lehenengo asteak igaro bezain pronto, kikildu egiten da jendea; borondate indar izugarria duten lau katu ohoretsu horiek izan ezik.

Hala ere, baikorrak izan behar gara. Bestela, geure burua malenkoniatzeara lortuko dugulako, eta ez da urteari hasiera emateko aukerarik onena. Kontutan izan behar da Gabonetako oporrek, gezurra badirudi ere, arrastaka eramaten gaituztela errutinara, eta horrek arazo larriak sor ditzake, batez ere bikoteen arteko harremanetan. Adituen esanetan, Gabonen osteko lehenengo hilabeteetan bikoteen %30a banandu egiten da, familian hainbeste denbora igaro eta gero. Gezurra dirudiela diot, lanegunen

estresa eta 'rutina' horien beharra omen dugulako; bakoitzak bere denbora behar duelako. Zorionez, Gabonak amaitu dira, eta 'lanari esker', beste gauzetan entretenituta egoteko parada izango dugu.

2007an gauza asko bukatu ziren, baina ezin gara iraganean trabaturik gelditu. 2008ak gauza berri gehiago erakutsiko dizkigu, hitz-emate horiei hitza janz ez bada ere. Momentuz, lantxoekin batera, unibertsitateko ikasleek ate joka dituzte lehen lauhilabeteko azterketak, eta gainontzekoek gaur egungo 'non-stop' bizimodura egokitzearekin aski dute. Urte berri on denoi!

“Gabonetako oporrek, gezurra badirudi ere, arrastaka eramaten gaituzte errutinara”

Hausnarketa bat besterik ez

“Euskal Herria Pirinioetan abesten eta dantzatzeko duen herri bat da”, esan zuen Voltairek. Bere garaian izango zen, onartu behar baitugu euskaldunok aspaldian ez dugula ez abestu, ez dantzarik egiten. Indarrak *a priori* galduta dugun borroka batean ihes egiten digu. Borroka horrek gure gaztediaren zati bat eramaten digu, familiak lur jota uzten ditu, eta auzokoak aurrez aurre ipintzen ditu; anai-arreben arteko liskarretan eta garraztu egiten gaituzten inbidietan. Arrazoia baliteke gure klima hezea izatea, gero eta urriagoa den zirimiria, bailarak ezkutatzen dituzten lainoak. Baina, egia esan, gure poesia tristea da; gure abestiak, goibelak; eta gure narratiba, bihotza ukabil batean sartzen diguten zoritxar eta aienen laburpena. Danimarka, gurea baino apur bat handiagoa den herria, erdutat izan beharko genuke. Danimarkarek argi dute euren biziraupena euren esfortzuan baino ez dagoela:



TOTI MTNEZ. DE LEZEA
(idazlea)

elkarren alde egiten dute, elkarri laguntzen diote eta ez dira haize-errotan aurka saiatzen. Herri bezala aurrera egiteko modurik izatekotan, hori lanean, kulturen eta “gurea” denaren defentsan oinarrituta baino ez da posible izango; beti ere, besteena errespetatuz, baztertze eta deskalifikazio barik. Lar gutxi gara lehia alferretan denbora galtzeko.

AM
Luzenbidea
Bilbo, 48001

- Argazkiak, argazkiak
- Liburuak, argazkiak
- Liburuak, argazkiak
- Liburuak, argazkiak

Hasierako: 10.000 €
Hasierako: 10.000 €
Hasierako: 10.000 €
Hasierako: 10.000 €

Hasierako: 10.000 €
Hasierako: 10.000 €
Hasierako: 10.000 €
Hasierako: 10.000 €

ATARRAKI

Hasierako: 10.000 €
Hasierako: 10.000 €
Hasierako: 10.000 €
Hasierako: 10.000 €

aldekoñe
hartz klinika
Tel: 94454435-07

Aruska Prieto Aguilar
Odontóloga

Hasierako: 10.000 €
Hasierako: 10.000 €
Hasierako: 10.000 €
Hasierako: 10.000 €

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefona, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikori-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@yahoo.es

**Inisitue Gazte
Asanbladagaz amaitzeko
ez dau danak balio!**

Joan dan hilabetean Zamudioko sei gazte-
ri (horretako lau adingabeak dira) zitazino
bana heldu jaken EAEko Auzitegi
Nagusitik. Gutun horretan herriko gazte-
estazinoan emondako gertakari batzuen
erantzuleak izatea leporatzen jaken. Ha-
lan be, gazteak egin ez daben gauza baten-
gaitik akusatuta dagoz.

Barriro be, eta lehenago ZGAgaz gertatu zan bezala, Udala Gazte Asanblada baten kontra dabil, eta horrek izen bat dauka: errepresinoa. Inisitue Gazte Asanblada suntsitzeko eta erditik kentzeko edozerk balio dauala uste dabe, baina oso erratuta dagoz.

Gazte-estazinoan dagozan ezegonkortasuna, antolamendu falta, funtzionamendu eza... justifikatu nahi dabe herriko sei gazteri errua leporatuz. Aski da! Lokal horretan arazoak dagoz, lehenengo momentutik gauzak txarto egin ziralako; inor kontuan hartu barik eta hauteskunde-ei begira. Gazte-estazinoan eraiki dan lokala udal ordezkariak gura izan dabena da eta, ganera, ordezkari horreen artean 30 urtetik beherako lagun bakarra dago. Zer dakie eurek gazteok gura dogunaren inguruan?

Lokalaren eredu inposatuaren kontra-

ko boikota eta ekimenak bideratu ditugula onartzen dogu. Horrelakorik egitea guztiz zilegia da. Baina, noski, lehenengo hanka sartzean erabat komenigarria da Gazte Asanbladaren kontra joatea eta ertzainei deitzea. Ez da kasualitatea akusatutako gazte guztiak Inisitue Gazte Asanbladakoak izatea, Udalari oposizioa egiten dabilkona (kartelak, buzoraietak, eskutitzak...) Gazte Asanblada baita.

Gure kontra bideratutako prozesua gelditu eta danon artean lokalaren arazoa konpontzeko, hango begiraleagaz berba egitera joan gara (eta udal ordezkariakaz be berba egitera joango gara). Horrek eduki dauan jarrera ardurabakoa aitatzekoa da. Izan be, ertzainei gazteen izenak emon eutsezan azken horreek iskanbiletan parte hartu ete eben erabat ziur egon barik.

Horren aurrean Inisitue Gazte Asanblada ez da geldirik geratuko eta gure lanagaz jarraituko dogu, oraingoan gure borroka eta errebindikazinoak inoiz baino haundiagoak izanik. Injustizien kontra gogor erantzun! Inisitue Gazte Asanblada aurrera!

Inusitue Gazte Asanblada



10,5 milioi euroko aurrekontua onartu du Deriok 2008rako



Kultura Etxea San Migel auzoan altxatuko dute. Beharretan bost milioi euro jarriko ditu Udalak

Derioko Udalak 2008. urteko aurrekontuak onartu zituen abenduan. EAJ-PNVk, PSE-EEK eta PPk aurrekontuen aldeko botoa eman zuten eta ANV eta EA, berriz, abstenitu egin ziren. Orotara, 10.558.720 euro zuzenduko dira hainbat jarduketatara aurten.

Hirigintza arloari dagokionez, inbertsio nagusiak Urkiola kalean egingo dira, horko ingurua berrigiturako baita. Etxebizitza Planarekin aurrera jarraituko dute eta datorren ekitaldian babestutako etxebizitza gehiago zozketatuko dira. Informazioa udal etxebizitza bulegoan eskura daiteke. Bulegoa udaletxe alboko lokal batean dago.

Kultur arloko inbertsiorik handiena Kultur Etxean egingo dute. Kultur Etxearen eraikitze lanetan bost milioi

euro jarriko ditu Udalak, eta aurtengo aurrekontuetatik 1.942.304 euro zuzenduko dira egitasmo horretara. Beharrak aurten amaitzea espero dute.

Beste alde batetik, 350.000 euro erabiliko dituzte kirol azpiegiturak handitzeko, eta urbanizazio lanetara 840.000 euro bideratuko dira. Herriko argiztapena ere hobetuko da (115.000 euro) eta igogailu bat jarriko dute eskolan (50.000 euro).

Derioko Udalak justizia sozialaren, aukera berdintasunaren eta genero berdintasunaren alde jarraituko du lanean. Horrela, %7 erabiliko du beharrianak dituztenei laguntzeko, eta, horrezaz gainera, hainbat proiektutan parte hartuko du Ekialdeko Europan, Afrikan eta Hegoamerikan.

San Migel auzoaren lanak aurten amaituko dira

Azken legealdian Derioko Udalak hainbat behar egin ditu San Migel auzoan. Gernikako Arbola kalea egokitu egin da Mungialde eta Unbe kaleetara, eta Almazene kalearen lehenengo faseari ekin diote. Azken horrek auzorako sarbide berria ekarriko du udalerriaren iparraldetik. Horrezaz gainera, Anboto plaza egin dute eta horren inguruan aparkalekuak jarri dituzte. Beharrak egiteko, 1.400.000 euroko dirulaguntza jaso du Udalak Eusko Jaurlaritzako Izartu programatik.

Udalak beharrekin jarraituko du aurten San Migel auzoan. Horrela, Almazene kalearen bigarren fasea amaituko dute eta Uribe kalea ere egokitu

ko da auzoaren ekialdetik. Horrezaz gainera, erabilera askoko kirol-pistak eraikiko dituzte Unbe kalean, eta aldagelak ere jarriko dira bertan.

Beste alde batetik, San Migel auzoan Kultura Etxearen eraikitze lanak hasiko dira urtearen lehenengo seihilekorean, eta dagoeneko eraikina kokatuko den ondoko kaleak atondu dituzte. Kultura Etxeak oso zerbitzu garrantzitsua emango die derioztarrei eta herriko elkartekoei, baita txorierriar guztiei ere. Proiektu horiek amaitutzat emango dituzte auzoaren birmoldatze lanak.



Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Ezkerreko lekura iristeko

Ezkerreko lekura iristeko

Plazakorako

Arazoak agur...



902 54 08 54 www.arlan.biz



Inauteriak prest!

Otsailak moztaroz beteko ditu Txorie-
rriko kaleak, eskolak eta txokoak. Dato-
rren hilean zehar Inauteriak ospatuko
dira, eta, dagoeneko, Udalak eta kultura
taldeak jo eta ke dabilta egitarauak
prestatzen. Edizioa itxi orduko, egitarau
hauen berri izan dugu. Hala ere, adi
egon, moztaroa janzteko aukera gehiago
egongo baitira.

Zamudion otsailaren 2an, zapatuz,
eta 3an, domekaz, ospatuko dituzte
Inauteriak. Zapatuan moztaroz eta kara-
ke lehiaketak izango dituzte arratsaldeko
5:30etik aurrera ludotekan, eta hurrengo
egunean, tostada lehiaketa, dantza eta
moztaroz txapelketa egingo dituzte Adin-
tsuen Etxean. Ekitaldioi arratsaldeko
7:30ean emango diete hasiera.

Loiun ere ospatuko dituzte Inaute-
riak otsailaren 2an. Arratsaldeko 5etan
haurrentzako parkea zabalduko da Za-
balotzeko pilotalekuan eta 18:30ean pai-
lazoek hartuko dute txanda. Triki-poteo-
ari 19:00etan ekingo diote eta 22:00etan
herri afaria izango dute Landtxueta ja-
tetxean. Ostean, gau-pasa egingo dute
bertako diskotekan. Ekitaldi horiek Beti
Lagunak jai-batzordeak antolatu ditu,

eta Udalak umeei zuzendutako moztaroz
jaia egingo du otsailaren 5ean. Jaia arra-
tsaldeko 6etan izango da frontoian eta
Pinpoil taldeak girotuko du. Ostean, txi-
txiburduntzi eta txokolatada egongo
dira.

Antzerkia, kalejira eta berbena

Beste alde batetik, otsailaren 1ean,
14:30ean, eskolako umeentzako antzer-
kia egingo da Kultura Aretoan. Zirko Tti-
pia taldeak *Giriguai* ikuskizuna eskainiko
du bertan, eta arratsaldeko 7etan Txan
Magoaren saioa ikusteko aukera egongo
da. Hurrengo egunean hainbat ekitaldi
izango dira arratsaldeko 7etatik aurrera
frontoian: artista lehiaketa, herri afaria,
moztaroz lehiaketa, saloi-dantzak...

Derion kalejira antolatu dute otsaila-
ren 1ean. Hori goizeko 10:45ean aterako
da herri ikastetxetik. Ostean hainbat eki-
taldi egingo dituzte Herriko plazan.
Arratsaldeko 6etatik aurrera, dantzen
agerraldia, musika eta txokolatada izan-
go dira kiroldegian.

Larrabetzun, azkenik, berbenari ekin-
go diote 17:15etik aurrera kiroldegian.
Berbena otsailaren 1ean egingo dute.



**Inauteririkin
ETORRI**

Moztarozko ikuskizuna, 4. etapa
Tel. 94-424 20 22
Web: 600 10 15 15 **AKOIA OTORRI**



**Elgezaldg
Kalejira**

Antzerkia eta
Inauteririkin
Jaiak eta berbena
Tel. 94-424 20 22

DERIO FRUTADENDA



Solube, 8
Tfn: 605 77 12 52
DERIO

**MARMOLGINTZA
GOYO**

RETALEDE GATRIKOTAK
UNILAK ETA TILERAK.

Elizategaren 1. sol, 18. kalerak
40100 ELIZATE (Bilbao)
Tfn: 94-424 02 02 - Fax: 94-424 20 62



**ORESTEN
IAZi**

Eguneko menua eta
Menu berdea

AKOIA 2. etapa Tel. 94-424 20 22

Osteopatia zentroa

Juan M. Masari
(Osteopatia - Fisioterapia)



Masari

Lanaberr, 1. kidea, 48100 DERIO
Tel. 94-424 10 22 - Maktelakoa: 600 10 15 15
www.osteopatia-zentroa.com

Vértigo

CONSEJO REGULADOR
LUGAR DE VERANO

BO DE VERANO EN LA CABAÑA DE LA CABAÑA DE LA CABAÑA

Poligono Industrial 1. etapa
40100 ELIZATE (Bilbao)
Tel. 94-424 20 22 - Fax: 94-424 20 62



**ORESTEN
IAZi**

Eguneko menua eta
Menu berdea

AKOIA 2. etapa Tel. 94-424 20 22

TUIYOK, DERIOKO II. ERAKUSLEIHO TXAPELKETAREN IRA-BAZLEA.– Danerik paraje! Derioko Zerbitzu eta Merkataritzako Elkarteko Profesionalak Derioko II. Erakusleho Txapelketa antolatu du. Parte-hartzaileek ahaleginak egin dituzte erakuslehoak polito eta dotore ipintzeko; eta, ondorioz, zaila izan da erabakia hartzea. Deliberatu ostean, epaimahaiak lehenengo saria eman dio TUIYO dendari. Beste irabazleak hauek izan dira: Estanco Perea, bigarren saria; Ane ileapaindegia, hirugarren saria; Liliak loradenda, laugarren saria; eta Perfumeria Mamen, bosgarren saria.



Lauroetako jai-batzordeak bertso-afaria antolatu du lehenengo aldiz

Lauroetan bertsozaletasun handia dagoe-la ezaguna da sobera. Horrela, azken 30 urteotan bertso-saioak izan dira beti bertako jaietan, eta Jubilatuen Egunean ere bertso-saioa egiten dute bazkaldu ostean. Jubilatuek Eguna 14 urte dabilta antolatzen. Baina jai-batzordeak erronka berri bati aurre egingo dio oraingo honetan eta bertso-afaria antolatuko dute otsailaren 15ean, barikuz. Bertso-afaria Aurregoiti jatetxean izango da 21:00etan, eta bertan Xabi Paya eta Etxahun Lekue bertsolariak arituko dira bat-batean.


Lauroetan bertso-afaria egiten den lehenengo aldia da, eta antolatzailerik 70 bat lagun batzea espero dute. Aurregoiti jatetxean txarribodak ematen dituzte eta menu hori, izango da bertso-afarian eskainiko dutena, hain zuzen ere. Afariak 26 euro balio du eta txartelak eskuratzeko telefono hauetako batera deitu behar da: 649497147 (Iñaki), 944533786 (Juanxu) edo 944532440 (jatetxea).

EAJren 100. urteurrena ospatu dute Zamudion

EAJ-PNV alderdia duela 100 urte sortu zen Zamudion, eta urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dute herriari urtarrean zehar. Hilaren 13an, domekaz, hasiera eman zieten ospakizun-ekintzei. Egun horretan meza egin zuten, eta hilaren 17an, barikuz, Aranzadi Zientzi Elkarteko hitzaldia eskaini zuten. Hitzaldi horretan Gerra Zibilean hildakoak lurpetik ateratzeko egindako lanez mintzatu ziren. Hilaren 19an, zapatuz, ekitaldi nagusiak antolatu zituzten. Ikurrina jaso ostean, Iñigo Urkulluk

hitz egin zuen, eta eguerdian herri bazkaria egin zuten frontoian. Bazkarian 140 lagun baino gehiago batu ziren. Bapoz jan ondoren, erromeriari ekin zioten.

Beste alde batetik, "Nunca más" erakusketa jarri da ikusgai Zamudiotarren. Erakusketa Sabino Arana Fundazioarena da eta Gerra Zibilaren irudiak eta azalpenak batu dituzte bertan. Zamudioko batzokiaren sorreraren datuak ere azaltzen dira erakusketan. Hori hilaren amaiera arte ikusteko aukera dago.



Club Hípico Antzuola
 Antzuola, 1000m altueran
 1000m altueran
 1000m altueran
 1000m altueran
 1000m altueran

FMC Forest, S.L.
 Zuzendaria: Pello
 1000m altueran
 1000m altueran
 1000m altueran
 1000m altueran

BASALBEITIKO TXAKOLINA
 1000m altueran
 1000m altueran
 1000m altueran
 1000m altueran


GOIKO TABERNA
 1000m altueran
 1000m altueran
 1000m altueran
 1000m altueran

KINCA
 1000m altueran
 1000m altueran
 1000m altueran
 1000m altueran

GOIKO TABERNA
 1000m altueran
 1000m altueran
 1000m altueran
 1000m altueran

Behargintzak prestakuntza zabala eskaintzen dizu

Behargintza Txorierriko Prestakuntza Zerbitzuak lau arlo eskaintzen ditu: etengabeko prestakuntza, lanerako prestakuntza, enpresak sortzeko prestakuntza eta enpleguko eta prestakuntzako programak. Arlo horiek langabetuak zein iharduneko langileak hartzen ditu, eta inoren kontura nahiz norberaren kontura lan egiten dutenen enplegarritasuna hobetzea dute helburutzat.



Etengabeko prestakuntza: Iharduneko langileei zuzenduta dago. Ikastaroak oso espezifikoak dira eta langilearen gaitasunak hobetzea dakarte.

Lanerako prestakuntza: Ikastaro horiek langabetuek zein lana hobetu nahi dutenek egin ditzakete.

Enpresak sortzeko prestakuntza: Negozioa martxan jarri nahi duen edonork hori bideragarria den aztertu behar du lehenengo eta behin. Ekintzaileentzako ikastaroetan behar horretan lagunduko diote hainbat arlo landuz: negozio-idea, merkatu-ikerketa, giza baliabideak eta aholkularitza ekonomikoa eta legala, besteak beste. Horrezaz gainera, enpresa sortu ostean etengabeko prestakuntza jasoko du. Beste alde batetik, jendea autoenpleguarekiko sentikor bihurtzeko tailerrak ere ematen dituzte Behargintza Txorierri.

Enpleguko eta prestakuntzako programak: Atal bik osatzen dute programa horiek. Alde batetik, prestakuntza teorikoa ematen da klasean edo tailerrean eta, beste alde batetik, enpresa batean sei, bederatzi edo hamabi hilabeteko kontratua izatzeko aukera luzatzen zaie ikasleei. Era berean,

hainbat gorabeheraren ondorioz laneratzeko arazoak dituzten pertsonen zuzendutako ikastaroak egiten dira eta prestakuntza teknikoak ere eskaintzen da edozein arlotan. Prestakuntza teknikoaren ikastaroa amaitu ondoren, Behargintzak ikasleak kontratatzen ditu bederatzi hilabete. Horretarako, komunitaterako onuragarria den zerbitzua jartzen du martxan.

Behargintza Txorierri hainbat ikastaro antolatzen ditu ikasturtean zehar eta urtearen lehenengo seihilekoari begira hauexek antolatu ditu LANERAKO PRESTAKUNTZA arloaren barruan:

-Ileapantzaile eta estetika ikastaroa (teoria eta praktikako 400 ordu eta praktikako 360 ordu lantokian).

-Jasomakinak eta biltegiaren kudeaketa (teoriako 204 ordu eta praktikako 180 ordu lantokian).

-Soldadura eta eraikuntza metalikoa (teoriako 244 ordu eta praktikako 360 ordu lantokian).

-Berogailu eta aire girotua.

-Berrikuntzetan aditu ikastaroa (teoriako 224 ordu).

-Ingurumenaren kudeaketako aditu ikastaroa (teorikako 304 ordu).

-Nomina, gizarte-aseguru eta mekano-grafiako ikastaroa (teorikako 204 ordu).

Horiek otsailetik aurrera hasiko dira eta izen-ematea zabalik dago jadanik.

Halaber, interesatuta daudenek izena eman dezakete ENPRESA SORTZEKO IKASTAROETAN. Kurtsoak martxoaren 31tik apirilaren 17ra bitartean, ekainaren 20tik uztailaren 10era bitartean eta azaroaren 11tik 28ra bitartean izango dira. Horrezaz gainera, tailer bi egingo dituzte: batean negozioaren sortze-prozesuaz eta bestean aholkularitza juridikoaz arituko dira. Lehenengoa martxoaren 5ean, ekainaren 4an eta urriaren 11n egingo da; eta bigarrena, martxoaren 12an, ekainaren 11n eta urriaren 8an.

Kurtsoak eta tailerrak presentzialak izango dira. Era berean, familia eta prestakuntza uztartzea oso garrantzitsua denez, enpresa sortzeko **ikastaroak on-line ere egin daitezke** martxoan eta urrian. Eta horretaz aparte, Behargintza Txorierriko Prestakuntza Arloak beste hainbat ikastaro *on-line* egiteko aukera eskaintzen die erabiltzaileei bere web orriaren bidez. Informazio gehiago nahi baduzu, hurbildu Behargintza Txorierri, edo www.e-txorierri.com web orrian kontsultatu.



**PRESTAKUNTZA ZERBITZUA
BEHARGINTZA TXORIERRI**

Berreteaga Poligonoa 13 – A

48150 – Sondika (Bizkaia)

Tfnoa.: 94.453.63.70

www.e-txorierri.com



“Zein gustura egon ginen Derion!”

Zelan Derion?

Zein ondo eta gustura egon ginen! Eta ez diot zu hemen zarelako. Ikaragarri ondo pasatu genuen. Izan ere, ikuskizunak normalean irauten duena baino 30 minutu gehiago iraun zuen.

Zergatik daude modan bakarrizketak azken bolada honetan?

Telebistak zerikusi handia du. Dena dela, mila arrazoi daude bakarrizketak hain erakargarriak izateko: umorezkoak dira; eszenografia aldetik merkeak dira; oso hurbilak dira gaurkotasuna jorratzen baitute... Eta azken hori da gakoa: eguneroko bizitzatik umorea egitea, hain zuzen ere. Beste alde batetik, aktoreen ikuspuntutik ondo daude, bakarrizketetatik bizimodua atera dezakezu-eta. Beraz, eskerrak eman behar dizkiot genero horri, gehien gustatzen zaidana ez bada ere.

Bakarrizketak modan daude, baina batez ere gizonezkoek egiten dute ezta?

Tira, apurka-apurka goaz. Gizonezko komiko batzuei entzun diet emakumezkoek ez genuela balio umorea egiteko. La Lulú Comedí konpainia sortu genuenean, este-reotipo horren kontra jotzea genuen helburu. Emakume komiko on batzuk sortu egin dira. Kontua da umorea, bizitzaren hainbat arloekin gertatzen den moduan, gizonezkoek dagokiela momentuz. Esan dudanez, telebistak indar handia du. Bertan, bi paper baino ez ditugu emakumezkoek: barregarria den itsusia, ala izugarri polita, baina ergel hutsa dena. Pertsonaiak dira, badakit, eta biak daude ondo, baina emakume arrunta eta sortzailerik ez dago. Gizonezkoek guk baino aukera gehiago dute, nahiz eta emakumezkoak alde

Ez zen txantxa izan, gozamina baizik. Gemma Martínezek umorezko bakarrizketa eskaini zuen Derioko Gurea Aretoan a-benduaren 28an, Haurtxo Errugabeen Egunean alegia. Hain ondo pasatu zuen, ezen ikuskizuna ordu erdi luzatu baitzuen. Elkarrizketa, berriz, laburra izan da.

murritzten gabiltzan.

Behin baino gehiagotan agertu zara telebistan. Zer zor diozu eta zer leporatzen diozu?

Telebista lagungarria da jende guztiarengana ailegatzeko. Gainera, lan gehiago zein ekonomia-egoera iraunkorra ekartzen dizkizu. Beste alde batetik, jendearen jarrera dugu: ezaguna zarenez, uste dute taberna batean goizeko 3etan lagunekin kopa bat

“Ciudad Rodrigon ezin izan genuen saioa aurkeztu, euria zela-eta; bertan ez du tanta bat ere egin azken hamar urteetan”

hartzen duzun bitartean ere barregarria izan behar duzula, eta hori ez da batere atsegina. Telebistan agertzen ez bazara, aldiz, jendeak uste du ez duzula lan egiten. Oro har, telebista ondo dago, baina ikuslearen kopuruaren –eta ez kalitearen– tiranipean dago, hau da, berdín dio saio bat ona ala txarra izateak, baldín eta jendeak ikusten badu. Hala ere, ezin naiz kexatu, nire lanak liluratzen bainau.

Zertan datza Sondikara eraman zenuten Walt Disney me jodió la vida antzezlanaz?

Aspalditik elkarrekin lan egiteko gogoia genuen lagun batzuk batu eta ipuina amaitzen denean printzesari zer gertatzen zaion galdetu genion gure buruari. Saioan Txano Gorritxu, Alicia, Loti Ederra eta Edurnezuriren etorkizunaz mintzatzen gara era dibertigarri batean. José Antonio Pérezek idatzi zigun testua eta Gurutzek (Beitia) eta biok La Lulu Comedí konpainia sortu genuen ekoizteko.

Nolako erantzuna jaso duzue? Kanpora eraman duzue?

Jendeak primeran pasatzen du. Saio gehiago egin eta kanpora eraman nahi dugu. Oso zorte txarra izan genuen kanpora atera ginen aldi bakarrean. Izan ere, Ciudad Rodrigon aire zabaleko antzerki jaialdi baten parte hartzeak ginen, baina ezin izan genuen gure lana aurkeztu euria zela-eta. Bertan ez du tanta bat ere egin azken hamar urteetan, baina guri suertatu behar. Atsekabe handia izan zen: txartelak saldu ta geneuzkan eta ikusmin handia zegoen. Gainera, saioa ona bada, hori bezalako azoketan ikuskizuna beste leku batzuerazabaltzeko aukera ekar dezake. Zer egingo diogu!



“Ez dut futbola gehiegi jarraitzen”



Iaz hasi zen Athleticen entrenatzen, eta partida guztiak jokatu ditu aurten. Joana Flaviano lezamar gaztea jo eta ke dabil denboraldia hasi zenetik: udan Europako Txapelketa jokatu zuen Espainiako gazte selekzioarekin; geroago, *Champions League*, Athleticen; eta orain, Liga irabazi nahian, buru belarri. Udaberrian Kopa dator, ea irabazten duten!

Testua eta argazkiak: Gaizka Eguskiza

Zelan doa egokitze-prozesua lehenengo taldean?

Hasiera batean asko kostatu zitzaidan. Adi egon behar zaio entrenatzaileak dioenari, eta nahiko urduri ibili nintzen partidetak lehenengo minutuetan. Taldekideek laguntza handia ematen didate eta pozik nago, baina ziurrenik egokitze-prozesu hori ez da amaitu eta oraindik hobetu beharra

izango dut.

Bilbao Athleticetik zatoz. Alde handia dago Superliga eta beheko mailen artean? Bai, bai. Ikaragarria. Gorputzez, handiagoak eta indartsuagoak dira jokalaria. Gainera, jokoa askoz azkarragoa da, baita partiden erritmoa ere.

Lehen taldera igotzea espero zenuen?

B taldean jokatzen duzunean beti izaten

duzu nagusiekin jokatzeo ilusioa. Aurreko denboraldiko azken hilabeteetan, lehenengo taldearekin ibili nintzen entrenatzen, eta horrek itxaropen txiki bat eman zidan, baina, egia esan, ez nuen espero.

Partida guztietan hartu duzu parte. Zelan ikusten duzu denboraldia?

Aurten hasiera txarra izan dugu, eta hori dela-eta nahiko urrun dugu Liga irabaztea.



Erreventos Indus, S.L.
Teléfono 94 433 57 34
47501 SOMEDIO (Vizcaya)
www.erreventos.com
E-mail: erreventos@erreventos.com



QAP
Quilómetros por el Ambiente

Oficina: Calle 14 100 Barakaldo
Tel: 94 471 03 00 / 94 471 00 00 00
www.quilómetros.com



ZURAS
Historia eta irakaslea

Abia Pabellón, 14 bilbo
94 4334 07 00 - 9004 0000-11 (40444)


Ensaladilla - ensaladilla



MIGUEL

Ensaladilla de
"Ensaladilla"
Ensaladilla

Alfaro, Damián, C. "ENSALE" 11007 E. 46124 460



Importación y venta



IMPORTACIÓN Y VENTA
DE VEHÍCULOS Y ACCESORIOS

Oficina: Calle 14 100 Barakaldo
Teléfono: 94 471 03 00 / 94 471 00 00 00
www.quilómetros.com

San Isidro



SAN ISIDRO
Historia eta irakaslea

Oficina: Calle 14 100 Barakaldo
Teléfono: 94 471 03 00 / 94 471 00 00 00
www.quilómetros.com

Hala ere, ez dugu itxaropenik galdu. Guk ia dena irabazi behar dugu eta, era berean, goian daudenek huts egin behar dute, gure taldeak aukeraren bat izateko. Baina oso zaila da. Ea zer gertatzen den Kopan, ea behingoz irabazten dugun aurren! Udaberrian jokatu da eta ilusio osoa dugu.

Pena handia izan zen berriro Europatik kanpo gelditzea? Baldintzatu du denboraldia?

Apur bat, bai. Izan ere, bi partida erraz irabazi genituen eta hirugarrenean 1-0 galdu genuen; berdindu izan bagenu, sailkatzea lortuko genuen. Baina hori guk ez genuen jakin partida amaitu arte. Pena izan zen, baina guretzat garrantzitsuena Liga da ziu-rrenik. Europa mailako txapelketa jokatu ahal izatea saria da guretzat, esperientzia polit bat.

Erdilaria zara, baina hainbat lekutan ari-tua zara. Non zaude erosoen?

Leku askotan jokatu dut dagoeneko: betidanik erdigunean aritu naiz, batez ere. baina aurten atzean zein hegalean ere jokatu dut. Nire ustez, atzean jardutea erdian baino erosoagoa da. Izan ere, erdigunean beti duzu norbait inguruan, eta gauza asko izan behar duzu kontrolpean. Atzeko aldean, berriz, aurrera begiratu baino ez duzu egin behar. Dena dela, toki batean nahiz beste batean jokatu, niri berdin dit. Berdegunean egotea eta hobetzen jarraitzea da garrantzitsuena.

Zein da zure jokalaririk kutunena?

Egia esan, futbola ez dut gehiegi jarraitzen. Nahikoa ditut neure kontuak. Batzuetan, Iñigok (Juaristi, entrenatzailea) partidaren bat ikusteko esaten digu eta orduan ikusten dugu, baina bestela... Jokalariren bat aukeratu beharko banu, Itziar Gurrutxaga aipatuko nuke. Badira jokalaririk onak, baina bera kristorena da jokalaririk nahiz pertsona moduan. Beharbada, erdigunean nire albo-

*“Guztioi gustatuko
litzaiguke profesionalak
izatea, baina zaila
iruditzen zait, gauzak
hobetu badira ere”*

an jokatzeko duenez, laguntza handia ematen dit. Erika ere oso futbolari ona da.

Nondik datorkizu futbolerako zaletasuna?

Txikitan, eskolan, guztiok jokatzten genuen jolastokian, neskak zein mutilek. Zazpi urte nituela, areto-futbol talde batean izena emateko esan nion amari. Hasiera batean, aitak ez zuen nahi, baina azkenean lortu nuen. Geroago Lejoara joan nintzen futboleko jokatzera eta handik Athleticera heldu nintzen.

Futbola zaletasuntzat edo lanbidetzat

hartzen duzu?

Zalantzarik gabe, zaletasuntzat. Guztioi gustatuko litzaiguke profesionalak izatea, eta baliteke inoiz lortzea. Bidean gaude, akaso, baina zaila iruditzen zait. Eta gauzak hobetzen dabilta: gaur egun klubaren ordezkari joaten gara hainbat ekitalditara, adibidez, eta lehen ez ginen joaten.

Udan Europako txapelketan ibili zara Islandia aldean. Zelan esperientzia?

Ez nintzen oso ondo ibili eta ez nuen gehi-
gi jokatu. Beste alde batetik, kontzentra-
zioa oso luzea izan zen eta, gainera, liskar
txiki batzuk izan nituen entrenatzaileare-
kin. Beraz, ez nuen ondo pasatu. Ez da
kanpora joan naizen lehenengo aldia eta
normalean primeran pasatzen dugu: lagun
minak ere bagara jokalariaok.

Nolako maila dago Europako Txapelketan?

Denetarik dago: alde batetik, selekzio batzuek baloi bat zer den ere ez dakite; bestetik, Frantziak, Ingalaterrak eta halako taldeek egundoko maila dute.





35 urte bete arte itxarongo duzu independente izateko?

Biziaren eta lanbidearen arteko lotura
Biziaren eta lanbidearen arteko lotura
Biziaren eta lanbidearen arteko lotura
Biziaren eta lanbidearen arteko lotura



EUZKO LEHEN BATAZKETAK
EUSKAL LEHIAKETA

IRAKASLEEN JOKUAK

IRAKASLEEN JOKUAK Irakaskuntzako irakasleak (2.000.000) *	IRAKASLEEN JOKUAK Irakaskuntzako irakasleak (2.000.000) *	IRAKASLEEN JOKUAK Irakaskuntzako irakasleak (2.000.000) *
--	--	--

Horrela egiten dugu AIKOR!

AIKOR! aldizkariak sei urte bete ditu abenduan. Ilusioa nagusi izan da urte horietan; baina, hala ere, ez da lan erraza izan 68 ale kaleratzea. Akatsetatik ikasi egin dugu, arazoak zoratu egin gaituzte, edizio-itxierek buruhauste bat baino gehiago eman dizkigute, eta, batez ere, hilero-hilero esku artean ale berria izateak poz handia ekarri digu. **AIKOR!** aldizkaria nola egiten dugun ezagutu nahi duzu? Erredakziotik buelta bat ematera gonbidatzen zaitugu.

Pertsiana altxatzen dugu

Astelehena, goizeko 8etan. Nagia kendu eta asteburua elkarri kontatu ostean, asteroko bilerari ekiten diogu. Bilera horretan astean zehar egin behar den lana banatzen dugu gure artean.

Gaizka iMac aurrean esertzen da eta aldizkariaren maketak aztertzen ditu: “Zer sartuko dut orrialde honetan?”, “Zenbat leku dugu beste horretan?”, “Nola hobe dezaket diseinua?”... Bitartean, gaur zein bezero bisitatuko dituen hasi da pentsatzen Arantza, eta zenbat faktura egin behar den. Izan ere, **AIKOR!** aldizkarian lan garrantzitsua egiten bada, hori Arantzak egiten duena da. Bai, badakigu. Zuetariko askok aldizkarian publizitate gehiegi dagoela pentsatzen duzue, baina iragarkiek diru sarrerarik handiena ekartzen digute. Osterantzean, ezinezkoa izango zen aldizkariak aurrera egiteak, asko baitira aurre egin beharreko gastuak: soldatak ordaindu, materiala erosi, inprentarekin zorrak kitatu, gastu finkoak... Beraz, mila esker iragarle guztioi; etorkizunean ere gure elkarlana oparoa izaten jarraitzea espero dugu.

Itxasok e-mailak begiratu ditu, eta dagoeneko telefonoa hartu du. Hainbat

Ezkerretik eskuinera: Arantza, Xabi, Itxaso, Amaia eta Gaizka



lekutara deitu behar da, mezuei bidez jakinarazten dizkiguzuen berriez aparte, Txorierrin zerbait gehiago gertatu den jakiteko. Batzuek telefonoa hartzen dute; beste batzuek, ez. Gu berriro ahaleginduko gara: bihar ez bada; hurrengoan, beharbada. Dena dela, berton aldizkarian jasotzen ditugunak baino albiste gehiago sortzen dire-

na badakigu. Horrexegatik zuen kolaborazioa ezinbestekotzat dugu, txorierritar guztiok ahalik eta informazio zabalena har dezagun. Badakizu, zure herrian zerbait gertatu bada, ekitaldirik antolatuko baduzu, zure auzokideak sari bat eskuratu badu, zure musika taldeak kontzerturik eskainiko badu, zortzi mila bat egin baduzu... deitu, eta horren berri emango dugu aldizkarian zein webgunean.

Kolaboratzaileen zerrenda luzea

Eta martxa hartu berria dugula kolaboratzaile batek deitu du. Fernando, Ama-goa, Aritz, Jon, Eder, Pospolin, Bestorrene, Oihana, Iñaki, Belen, Juantxu, Sabin... Sei urte horietan asko izan dira **AIKOR!** aldizkari-ritik pasatu diren lagunak. Zerrenda luzea osatuko genuke guztien izenak aipatuz gero. Aurrekoen artean zurea ez badago, ez hartu txarto, bihotzean eramaten zaitugu, e! Izan ere, behin baino gehiagotan, edo hilero, artikulu bat idaztera animatu zara eta lana kendu diguzu; argazkiak egitera joan zara, guk asteburuan lan egin behar ez izateko; hainbat pertsonarekin jarri gaituzu harremanetan; zenbait albiste helarazi



diguzu; gorriak ikusarazi dizkiguzu, testua garaiz agindu ez duzulako (kar, kar)... Nola ahaztu zure izena, nahiz eta gehiengotan kredituetan agertu ez?

Joan den astean amaitu gabe utzi zuen testua amaitu ondoren, webgunean sartu du Itxasok. Gaizkak testu horren argazkiak eskegi ditu, eta grabagailua eta argazki-kamara 'atoan' behar dituela dio. Hamar minutu barru elkarrizketa egin behar duela Lezaman. Maketatzailea izateaz gainera, kazetaria ere badelako Gaizka. Eta argazkilaria, eta diseinugilea, eta noiz-behinkako modeloa, eta etiketa-itsaslea... Egia esan, guztiok egiten dugu denetarik.

Arantzari galdu diogu pista. Telefonoz deitu du eta Derion dagoela esan digu. Hogei minutu eman dituela bezero batekin hitz egiten, eta ia ordubete beste batekin. Banketxera joan behar dela. Eta laster bulegora bueltatuko dela.

Eta bueltatzen denean zigarro bat erretzera ateratzen gara kalera. Eta bizitza zelan doakigun kontatzen diogu elkarri. Baina zigarro laburra izango da, autotik emakume bat jaitsi delako. Itxasorekin gelditu da, aldizkariaren hurrengo alean berari egindako elkarrizketa argitaratuko delako. Grabagailua, koaderno eta boli-grafoa mahai-lagun dituztela, Arantzak zein iragarki apaindu behar duen esaten dio Gaizkari. Albiste asko ekartzen dizkigu Arantzak. Batzuk onak; eta beste batzuk, ez hain onak. Pertsona guztiek bezala, akatsak egiten ditugu: bai testuetan, bai diseinuan. Zaila da guztiak pozik edukitzea.

Zortea aldekoa izanez gero, pertsiana arratsaldeko laueta jaitsiko dugu. Oste-rantzean, bulegoan gelditu beharko gara, eta pilatu zaigun lana bukatu. Edo elkarrizketa bat egitera atera beharko dugu, edo sari-emate batera, edo... Baina derri-



gorrean lanean jarraitu beharko duena Arantza izango da. Arratsaldean ere komertziorik komertzio ibiliko da eta hutsarteak bulegoko lana egiteko aprobe-txatuko ditu. Noiz amaitu? Batek baki!

Euskaltzaindia “gurea”

Argitaratu baino lehen, testu guztiak Alberto, Jagoba eta Iñakiren eskuetatik pasatzen dira. Hiru mutil horiek gure zuzentzaile taldea osatzen dute: “gure Euskaltzaindia txikia”, hain zuzen ere. Inork baino hobeto dakite zeintzuk diren guztiok zor-tuko gaituen euskal akademia horrek atera dituen azken arauak. Subjektuari ez badiogu -k jartzen, eurek ipintzen dizkigute; nor-nork erabili beharrean, nor-nork jarri badugu, eurek zuzentzen digute; esaldia ez bada ulertzen, goitik behera aldatzen digute, biz-

kaieraz ez badugu asmatu, testua egokitzen dute... Eta pazientzia handia dute, behin eta berriro akats bera zuzendu behar digute-eta. Baina batzuetan txunditurik uzten ditugu, e! Gu ere pixkanaka-pixkanaka ikasten ga-biltza. Irakasle onak ditugu.

Ordenadorea izorratu zaigu, aiene!

Bat-batean ordenadoreak zerbait arraro egin eta pantaila beltza gelditu da. Gehien behar genuen momentuan! Gutxi barru edizioa itxi beharko dugu eta alarma nagusi da bulegoan. Telefonoa hartu eta Ioritz deitzen dugu. Ioritz gure infor-matikako teknikaria da eta inork baino gehiago daki ordenadorez, inprimagailuez eta eskanerrez. Ziztu bizian dator eta arazoa berehala konpontzen digu. Eske-rrak Ioritz dugula!

ARTEAGA koltxoi-denda

Derioko Sektoria • 94 454 51 47 • DERIO



Artaziak ez ditugu topatzen, non demontre...?

Xabi egunero etortzen da bulegora. Berririk dagoen galdetzen digu eta, guk "berriak beti daudela" esaten diogu. Egia esan, askatasun handia dugu gaiak tratatzeko orduan, baina badaude batzuk korapilatsuak direnak. Batzuk gustatzen zaizkizu, eta beste batzuei duten baino garrantzia handiagoa ematen diezu. Eta erdian gu gaude. Hori ulertzen ez dugun egoera da.

Baliabideak ez dira egokienak eta askotan hanka-sartzeak izaten ditugu. Eta baliabide egokiak izanez gero, hanka-sartzeak egiten jarraituko genuena ziur gaude. Zer egingo dugu! Gizakiaren berezko ezaugarria da. Gure lana publikoa da, eta, ondorioz, eztabaidagarria ere badela aspaldian onartu dugu. Baina zuk ere ikasi beharko zenuke gauzak esateko era asko daudela, norberak ez duela beti arrazoi osoa izaten eta besteen iritziak onartu behar direla. Gure partetik, barkamena eskatzen dizugu eta hurrengoan hobeto egiten saiatuko garela ziurtatzen dizugu. Hala ere, gurekin arazorik baduzu, badakizu non gaituzun. Eseri eta guztion artean hitz egitea haserre bizian jartzea baino askoz eragingarriagoa da. Eta hori da, hain zuzen ere, egin behar duguna proiektu honek aurrera egitea nahi badugu. Izan ere, artaziak aspaldian galdu genituen, baina egunero zuenekin egiten dugu topo, baita ondoan duzunarenekin ere.

Banaketa egin behar da, aupa!


Hilero-hilero ale berria esku artean izateak poz handia ekartzen digula esan dizugu. Hori ez da egia biribila, gauza guztiek bezala, aldizkaria inprentatik ailegatzeak alde ona eta alde txarra baititu. Alde ona guztiok ezagutzen duguna da:


aldizkaria aztertu, akatsak apuntatu, polito gelditu denaz poztu eta zuk ere ikusiko duzula jakitea. Baina zuk aldizkaria irakurri ahal izateko, postontziz postontzi banatu behar da, eta nork egiten du? Arantzak, Gaizkak, Itxasok eta Amaiak. Amaia nor den beranduago azalduko dizugu.

Goizeko 10ak. Inprentak agindutako garraiolaria ailegatu berria da eta furgoneta kutxaz beteta dakar. Kutxak deskargatu ostean zein herritatik hasiko garen pentsatzen dugu. Argi daukagu: Larrabetzura eta Lezamara joango gara, eta, amaitu ondoren, Zamudiori eta Sondikari ekingo diegu. Bitartean, baserriak eta Loiu egingo dira, eta hurrengo egunerako Derio utziko da. Eta aurreko egunean zerbait amaitu barik gelditu bada, hori ere egingo dugu.

'Karritoa' hartu eta kutxak autoen maletategian sartu ostean, banaketa egiten hasi garen herriraino abiatzen gara. Kortexa aparkatu, aleak 'karritoan' sartu, eta postontzi eta txirrinen abentura hasten dugu. Haizea, euria, eguraldi atsegina edo egunduko beroa egon arren.

Atari bakoitzean zenbat postontzi





Bisitatu gure bloga

www.blogari.net/tximintx

Revista de cultura, literatura, arte e historia.

Revista de cultura, literatura, arte e historia.



dagoen buruz dakigu. Auzo edo kale batzuetan postontziak kalean dituzte, baina gehienetan txirrinak jo behar dira. Erantzunak era askotakoak izaten dira, zuzenak, poztekoak, kuriosoak eta harri-garriak. Batzuk ilusioz ditugu zain, beste batzuek ez digute uzten postontzira heltzen ere: “karritotik” bertatik hartzen digute aldizkaria. Eta badira beste batzuk atea zabaltzen ez digutenak. Baina benetako amorrua ematen diguna ez da hori, inoiz gertatu zaigun beste hau, baizik: aleak postontzietan sartu eta handik gutxira guztiak lurrean edo zakarrontzian ikustea.

Beste alde batetik, lagun askok adierazi digute ez dutela aldizkaria etxean jasotzen. Inoiz ale barik gelditzen bazara hainbat arrazoiengatik izan daiteke: zure atarian ez duelako inork atea zabaltu eta ez dagoelako saskirik bertan aleak uzteko; zure auzokide batek lapurtu dizulako; edo zakarrontzira bota dutelako. Horretaz aparte, herriak gero eta handiagoak dira eta ez da erreza toki guztietara heltzea.

Dena dela, non topatu izango duzu, herri guztietan leku askotan uzten baitugu: estankoetan, udaletxeetan, liburutegietan, kiroldegietan, komertzioetan... Bestela, gure bulegora deitu, aikor!lagun egin eta, diru-kopuru txiki baten truke, aldizkaria hileroko aginduko dizugu. Baina gure bulegora deitu, e! Eta ez Udalera edo Mankomunitatera, izan ere, Aikor! aldizkaria TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioaren proiektua da eta ez dago beste inoren ardurapenean.

Zalantza barik, banaketaren zatirik “dibertigarriena” baserrietatik egitea da: mendi-puntara joan behar izatea; aldapan gora kotxea gelditzea, aldapan behera ere bai; kontuz ibiltzea, pinu-hostoekin laprast ez egiteko, txakurrek koska ez egite-



ko... Eta hori guztia Arantzaren Peugeot-ek dibertigarriagoa egiten zuen. “Aldapa igoko du?”, “Galga barik geldituko gara?”, “Gasolina-usainak zorabiatuko gaitu?”. Gorriak ikusi ditugu behin baino gehiagotan. Baina Olentzerok kotxe berria ekarri dio Arantzari eta hemendik aurrera baserrietan banatzea erosoagoa izango delakoan gaude. Baserri guztietan postontzia izateak ere lagunduko luke.


Proiektu gehiago ditugu esku artean

Aldizkaria ez da egunero lantzen dugun proiektu bakarra. *Aikor.com* webgunea martxan jarri genuen duela urtebete, eta aurten *Lan Txorierriren* hirugarren alea kaleratuko dugu. *Lan Txorierri* enpresa

urtekaria da, eta Amaiak du horren ardurara. Horrezaz gainera, *Dantzaret* aldizkari-txoa egiten dugu Bizkaiko Dantzarien Biltzarrarentzat, eta Danerik paraje! Derioko Zerbitzu eta Merkataritzako Elkarte Profesionalari ere katalogoren bat egin izan diogu inoiz.

Proiektu guzti hauek hazten laguntzen diote **AIKOR!** aldizkariari, finantzazio bideak sendotzen dituztelako, batez ere. Lehen aipatu dugun moduan, publizitatea gure diru sarrera nagusia da. Baina azken urtean txorierritar askok lagundu digute Aikor!lagun kanpainarekin bat eginez. Instituzioetatik ere dirulaguntzak jasotzen ditugu, nahiz eta batzuetan ez izan guk nahi genukeen bestekoak.

Buruan proiektu berriak ditugu; faltan dugun gauza bakarra horiek aurrera ateratzeko modua eta astia topatzea da.



Hotel Tryp Sondika



Euzko Legebiltzaria

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y EMPLEO
DIRECCIÓN GENERAL DE TURISMO

Joseba Lizarbe



TRYP

HOTEL

Txoriak kantari

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina

Pozik daude Jesus Mari Gorritxategi Loiuko San Pedro elizako abadea eta Jauntxu Bilbao bertako koruko kidea. Pozik baino, guztiz pozik. Izan ere, San Tomas egunean elizako organo berriaren bedeinkapen elizkizuna egin zuten. Eta hori ez da organo arrunta, ez; berebiziko organoa da. Bizkaian mende honetan egin den bakarra.

Ikusmina nagusi izan zen Loiuko elizan San Tomas egunean. Bertaraino hainbat herritar hurbildu ziren; eta haiekin batera, Ricardo Blazquez Bilboko gotzaina, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko ordezkaria eta Klais Alemaniako enpresaren delegatuak. Guztiak organo baten inguruan batu ziren. Eta Pedro Guallar Bilboko Kontserbatorioko organo irakasleak soinua atera zion instrumentuari publikoaren gozamenerako.

Organo hori Loiun dagoen lehenengoa da eta Arrietane Fundazioak ordaindu du. Fundazioaren presidentea Loiuko semea da, eta aspaldian dabil herrian hainbat proiektu garatzen kultura, eliza eta gizarte arloan. Horrela, azken urteotan elizan egin-

dako berritze lanak bultzatu ditu, eta horiek burutzeko, organoa egiteko agindu du.

Bilboko Elizbarrutiko Organisten Elkartean bederatzi proiektu aurkeztu ziren, eta horien artean Klais enpresarena aukeratu zuten. Klais enpresa Bonnen dago eta oso inportantea da, munduko organorik



“21 erregistro ditu
eta margotuta
dagoen organo
bakarra da Bizkaian”

ederrenak egin baititu: Koloniako katedral-eko biak, Munich-eko Filarmonikakoa, Kuala Lumpurreko Dorreetakoa eta Pekin-eko Antzoki Nazionalekoa, besteak beste.

Loiuko San Pedro elizako organoaren proiektua duela urtebete, gutxi gorabehera, jarri zuten martxan. “Lehenengo hiru hilabeteen planoak egiten ibili ziren, eta hurrengo sei hilabeteen estruktura- eta egin zituzten Bonnen. Azaro eta abenduaren bitartean organoa muntatu zuten elizan”, azaldu digute Jesus Marik eta Jauntxuk.

Aukera berriak

Instrumentu ikusgarria da, benetan. Neurri hauek ditu: sei metro zabalera, zor-






tzi metro luzera eta metro bi sakonera. Berezitasun handiak ditu, izan ere, tonu eta instrumentuen soinuaren artean hogeita bat erregistro ditu: biolina, flauta... "Eta beste erregistro bat sartzeko asmoa dugu, Loiurako oso inportantea izango dena: txorien kantua". Arrazoia esan digute. Loiu Txorierrin dago eta Txorierrri txorien lekua da. Gainera, elizako erretaulan ere txoriak agertzen dira.

Organoa haritzeko da eta Eva Arrizabalagak margotu du. Horretarako, erretaula hartu du kontuan, elementu biak bateratu nahi izan dituelako. "Bizkaian ehun organotik gora daude, baina gizaldi honetan egin den bakarra Loiuko da. Era berean, badaude beste batzuk ezaugarri berdinak dituztenak edo handiagoak direnak, baina gurea margotuta dagoen lehenengoa eta bakarra da".

Guallarrek organoaren ardura hartu du. Herriko organistak domekako mezan joko du, eta, organista horretaz aparte nortzuek erabili ahalko duten ere Guallarrek erabakiko du. "Zenbat eta esku gutxiago organoarekin ibili, gero eta hobeto dela esan digute".

Instrumentuak aukera berria ekarri dio Loiu herriari. Alde batetik, liturgian joko dute, eta, beste alde batetik, kontzertuetan ere erabiliko dute. "Musika kultura zabaltzeko tresna da. Herrian dugun aukera aprobe txatu eta hemendik aurrera kontzertuak, bai organokoak, bai korukoak, antolatzea pentsatu dugu". Lehenengoa martian emango dute, ziur asko; eta hurrengoa, ekainean. Horrezaz gainera, organo eskola martxan jartzea pentsatu dute, baina hori denboraz eta patxadaz aztertu beharko duten kontua da. Batek daki zer ekarriko duen geroak!



Lehenengo eta behin, zorionak eman behar dizkizugu. Zer suposatzen du izar horrek zuretzat?

Azken urte bian egindako lanaren eragipena da. Zoriontsu sentitu gara, eta izar hori adrenalina-txertoa izan da guretzat: aurrera jarraitzeko eta lana gogotsu egiteko adrenalina-txertoa.

Eta jatetxearentzat?

Jatetxeari buruz baino, bertoko lantaldeari buruz arituko nintzateke. Lana gogorrago egiteko gogoia ekarri digu. Eta ilusioz bete gaitu. Ondorioz, erronka berriak jarri dizkiogu gure buruari: aurten, gaur arte bezala jarraitu behar dugula uste dugu, baina proiektua epe ertainean handiagoa egin nahi dugu. Beti zentzu umil batean, noski: egunetik egunera aztertuz eta helburuak pixkanaka-pixkanaka handituz.

Eraginik izango du Txorierrin, zure ustez?

Guk bezeroengan igarri dugu asko, gero eta lagun gehiago etortzen dira-eta. Gainera, kanpoko jendea ere –frantsesak eta Estatuko hainbat- gurera hurbildu da. Nire ustez, hori positiboa da zentzu guztietan, bai guretzat, bai Txorierrirako. Izan ere, kanpoko jendeak inguru hau ezagutzeko modua izan liteke.

Sariek ospea eta izena ekartzen dituzte. Kritikak baino eragingarriagoak dira?

Ez dakit; nik biak hartzen ditut kontuan. Konstruktiboak direnean, kritikak oso onuragarriak dira guretzat, hazten laguntzen digutelako. Eta sarien bidez, eskertuta sentitzen dugu gure lana.

Dena dela, zuri buruz irakurritako kritika guztiak onak dira. Euskal sukaldaritzaren berriaren erreferenteenetarikoa zarela diote. Bat zatoz kalifikatzaile horrekin?

Ez zait halako gauzetan ibiltzea gustatzen. Niri gustatzen zaidana lanera egunero etortzea da, eta gure bezeroak zoriontsu egitea. Eta hortik aurrera, eta ahal dugun neurrian, lorpen handiak izatea. Baina umiltasunarekin, eta ez argazkitik; lanetik baizik.

Sukaldaritzaren berrira sukaldaritzaren tradizioaletik ailegatzen da. Zelan izan da zure ibilbidea?

Etxean sukaldari amateur artean ibili izan naiz, zorionez. Jana eta

Eneko Atxa, sukaldaria

“Gakoa ez dago gauza egitean, gure sustraie

Michelin gidak izar bat eman dio Larrabetzuko Azurmendi jatetxeari duela gutxi. Eneko Atxa jatetxearen burua da, eta berarekin sukaldaritzaz eta sentsazioez mintzatu gara.

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina



“Saria positiboa da zentzu guztietan, bai guretzat, bai Txorierrirako”

sukaldea maite nituela konturatu nintzen oso gaztea nintzela. Sukaldea gustura sentitzen nintzen tokia zela; eta oso arlo interesgarria zela niretzat. Orduan, funtsezkoena ikasteari ekin nion. Nik beti esaten dut gakoa ez dagoela gauza berriak eta mo-

dernoak egitean, bazik eta gure sustraietan dagoela. Sustrai horietan ondo murgiltzen ikasi behar dugu, eta, ondoren, teknikak elementu transmisoretzat erabiliz eboluzionatu. Euskaldunok nahiko berriztatzaileak gara, nire ustez. Hori bai, beti gure sustraiei eta sukalde-herentziari eutsiz. Lege nagusitzat dugu azken hori.

Sukaldaritzaren mota horiek biak borrokan daudela ematen du askotan.

Topikoa da hori. Zer uste duzue? Ez zaidala txuletoi on bat edo indaba gozoak jatea gustatzen, ala? Guztioi gustatzen zaigun gauza da hori, ezta? Sukaldaritzaren mota bietarako lekua dagoela pentsatzen dut, eta biak nahastea oso onuragarria dela. Eta, era berean, biak dastatu eta biekin gozatu egin behar dugula. Azken batean, batak bestearen eskutik joan behar du; eta ez bata bestearen kontra.

Bezero batzuei zaila egiten zaigu sukaldaritzaren berria onartzea: batetik, izen ulertezinekin egiten dugu topo; bestetik, konposizio polita aurkitzen dugu plateretan, baina jateko gutxi; eta garestia ere bada...

Beno, gure dastatzeko menua 12 pla-



“ Sentsazioak
transmititu nahi
dizkiegu bezeroei,
eta hainbat
lektura eraman ”



Izenak erabat kuriosoak dira gehienetan.

Gure helburua ez da bezeroak elikatzea, horretarako, etxean egiten den sukaldaritza aproposa delako. Guk sentsazioak transmititu nahi dizkiegu bezeroei. Begiak itxi eta "Euskal Herrian jaten ari naiz! Eta egundoko ondo jaten ari naiz, gainera", pentsa dezatela. Sentsazioak transmititzea zaila da askotan, eta plater bat prestatzen hilabeteak eta hilabeteak eman ahal ditugu, transmititu nahi duguna lortu eta lanarekin gustura gelditu arte. Beste alde batetik, elkarlanean gabilitza Euskal Herriko

Plater bakoitzak bezeroak leku ezberdinetara eramatea nahiko genuke. Badago bat ‘Udazkena’ duena izena. Platerean kanpai bat jartzen dugu eta horren barruan, kea. Keak gure udazkeneko usainak ditu, Txorierrin bertan hartutako orriak errez gero, darion kea baita. Kea desagertzen denean, paisaia bat agertzen da, eta hori bertoko basoetan dago inspiratuta. Platerean azaltzen den lurra jangarria da, eta oilo-usaina du, sasoiko perretxiko-usaina... Udazkeneko lore jangarriak ere jartzen ditugu plater horretan. Ondorioz, basoetara eramaten ditugu bezeroak, baserri-
ra, euren haurtzarora...



The Nahikari, 1
1800 999 809 509

Nahikari
Bilingual Festival

Tell me something
Hear me at the same time

23

“Ez goaz marka egitera”

Aurpegian igarten jake eta ezin dabe disimulatu. Ezta gura be. Gulu eta Patxi ilusioz beterik azaldu jakuz. Izan be, Leire eta Etxahunegaz batera Sahararen aldeko maratoian hartuko dabe parte zezeilaren 25ean. Larrabetzuarrak hiru egun lehenago abiatuko dira basamortura.

Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: I.M. eta Txema Pico

Nola sortu zan maratoian parte hartzeko ideia?

Maratoi batzuk daukaguz eginda, eta egun baten Sahararen aldeko maratoian parte hartzera animatu ahalko ginala bota eban Guluk. Eta Joxe Iriarte “Bikila”k esperientzia horren ganean idatzitako liburua be ekarri eustan. “Bikila” hiru aldiz izan da maratoi horretan. Lasterketaren datak ez dira oso egokiak eta, noski, ez da gauza bera maratoi bat Bilbon, Donostian edo Saharan egitea. Baina, beno, gure artean komentatu, eta azkenean Larrabetzuko lau lagun animatu gara bertan parte hartzera. Proiektua Txorierri osora zabaltzeko asmoa izan dogu hasiera baten, baina berandu egin jaku. Dana dala, inor animatzen bada, garaiz dabil oraindino. Izen-emotea diego.munoz@lastlap.com helbidean egin leike.

Entrenamenduak egiten ibiliko zarie...

Astean bost egunetan urteten dogu entrenetan; baina, egia esan, ez gabilz maratoia espresuki prestatzen. Ez goaz marka egitera. Guretzat oporrak dira, eta bertara joango gara saharar herriari geure alkartasuna adieraztera eta gozatza. Inguruan antolatzen dan maratoi baten parte hartzen dozunean, kirol erronkatzat hartzen dozu, baina hau ez da bardin... Helburua amaitzea da, besterik ez.

Halanda be, basamortuan korrika egitea gogorra izan behar da: harea, haizea, eguzkia... Prestatu beharko da horretarako...

Bai, baina jakin arren zein baldintzatan

“*Maratoia baino gehiago, lasterketa horrek emoten deutsun aukerea da politena: astebetean hango jendeagaz bizi izatea, euren egoera zuzenean ezagutzea...*”

egingo dozun korrika, hemen ezin zara era egokian prestatu.

Zerbait berezia eroateko aholkatu deutsue, kirol ekipamendua dala-eta?

Ura, bisera, eguzkitako betaurrekoak eta zapia, aurpegia eguzkitik eta haizetik babesteko. Ibilbidean zehar anana-postuak jarriko dira, baina, badaezpada, janaria be eramateko esan deuskue.

Maratoia errefuxiatuen kanpamenduetatik pasatuko da eta lau ibilbide antolatu dira: 42 km, 21 km, 10 km eta 5 km. Zein egingo dozue bakotxak?

Leirek 5 kilometrokoa egingo dau. Berak saharar umeak hartzen ditu etxean udan, eta umeen bitartez ezagutzen

dau hango egoera. Hara joateko gogo handia dau. Beste alde batetik, Etxahunek 21 kilometroko lasterketa egingo dau; eta guk biok, 42 kilometrokoa.

Bidaia garestia da: 850 euro. Babeslerik ez dozue izango?

Lehen aitatu moduan, berandu ibili gara eta ez dogu ezer egin. Kirol materiala be eroateko asmoa genduan hasiera baten, baina ez gara mugitu. Gure motxilakaz eta opari xume batzukaz ailegatuko gara kanpamentuetara. Dana dala, hurrengo urteei begira hobeto antolatu geinkean gauzea da. Bertan harremanak landu eta benetan behar dabena jakin ostean, errazagoa izan leiteke.

Beno, poz-pozik ikusten zaituegu. Zelan bizi izaten ari zarie maratoiaren aurreko egunak?

Bidaia prestatzen, informazioa biltzen, entrenetan... Ganera, urian gero eta lagun gehiagok daki maratoian hartuko dogula parte, eta jakingura sortu da. Galdera asko egiten deuskuez, aipamen asko... Baina maratoia baino gehiago, lasterketa honek emoten deutsun aukerea da politena: astebetean hango jendeagaz bizi izatea, euren egoera zuzenean ezagutzea, geure alkartasuna adieraztea... Izan be, badakigu maratoia, arinago edo astirago, amaituko doguna; baina hango egoerea teorian ezagutzen dozu... eta praktikaren zatitxo hori be ezagutu gura dozu.

Zer espero dozue esperientzia horretatik? Amaitzea, ez galtzea eta erronkaz gozatzeta. Bueltan kontatuko deutsuegu.



Alkartasunaren maratokia

Sahararen aldeko maratokia 2001ean egin zan lehenengo aldiz. Urte horretan Saharar Errepublikak Demokratikoak 25 urte bete zituan. Maratokia Saharako kirol batzordeak bultzatu eta nazioarteko boluntarioek antolatzen dabe. Lasterketak saharar gazteen artean kirola sustatzea dau helburu, baita proiektu humanitario bat finantzatzea be. Holan, aurten kirol-zentroa amaituko dabe eta birziklapen-laboregia eraikiko da.

Sahararen aldeko maratokia alkartasun ekimena da, batez be. Korrikalarien markak ez dabe garrantzirik; basamortuan ez da kronometroaren kontra lehiatzen. Parte-hartzaileek babes morala eroaten deusie herri sahararrari, baka-rrik ez dagozala adierazten deusee. Ibilbidea hiru iheslari kanpamenduak –Smara, Aoserd eta ElAyoun– lotzen ditu sinbolikoki eta basamortuan zehar eroaten ditu lasterkariak. Basamortua iheslarien etxea izan da 30 urtean.

Txema Picok maratokiaren lehenengo edizioan hartu eban parte. Lezamarrak azaldu deuskunez, ez da erreza espe-rientzia horrek eragindako sentimen-duk azaltzen. Harritzan eta hareatzan

zehar 42.195 metro korrika egitea, lasterketa goizeko 8etan 0 gradutan hasi eta eguerdiko 12:13an 36 gradutan bukatzea gogorra da edozein korrikalari-arentzat. Halanda be, hori guztia ez da bere gogoan betiko gelditu dana, ez. Izan be, orduko eta oraingo sentimen-duk oso bestelakoak dira. “Hunkitu egin ninduan herri ahaztu batek eraku-tsitako duintasunak. Eta miresmena sorrarazi eusten bizi baldintza txarretan dagozan emakume, gizon eta umeek adierazitako kemenak eta pozak. Herri sahararrarekiko alkartasuna sentitu neban, pairatzen dauen injustizia dala-eta; baina ezintasuna be sentitu neban, hain larria dan egoera baten aurrean erantzun egokia emoteko gai ez izatea-gaitik”. Agian, horrexegaitik, Saharara bueltatu zan geroago, emakumeen irrin-tzien ikarea edo umeen irribarrean goxotasuna berriro sentitu behar zitua-lako. Txemak egingo daben alkartasu-nezko ahalegina eskertu nahi deuse Larrabetzuko lagunei. “Eroan basamor-turaino txorierritarron laguntza eta eka-rrri, mesedez, sahararren itxaropena eta adorea”.



GORRORAKO KULTUR ETXEA
 Euzkadi (Leizaola, 1. (albergoaren aldetik))
 TELERAKO: 944.00.00.00

ZINEA

Leizakoro, 1. aldea

19.00 eta 21.00
 19.00 eta 21.00

**LOMBARDI
 KATATONQUELLÉ (1994)**

**LOS 4 FANTASTICOS Y
 SILVER SURFER (1994)**

PAPA CANGURO 2 (1994)

**TXORITZORAK
 (1994)**

Polonia: Hilar txikiak (1994) (1994)
 (1994) (1994)

ANTZERKIA

19.00 eta 21.00
 19.00 eta 21.00

HANDITAN
 (1994) (1994)
 (1994) (1994)

19.00 eta 21.00
 19.00 eta 21.00

bbk

Txorierriko Gazte Koordinadorea

“Gazteoi alternatibarik eskaintzen ez digun eskualdea garatzen dabiltza”

TGK sortu berria da eta Txorierriko herri guztietako gaztek osatzen duzue. Zergatik batu?

Lehenengo eta behin, eskualdeak gazterien diagnostikoa behar zuela ikusi genuen. Eta bertoko gazteen arazoak eta beharriak aztertu behar zirela. Eskubide asko urratuta ditugula atera genuen ondorio diagnostiko horretatik; eta gune bat behar zela, egoera horri aurre egiteko. Beste alde batetik, Gazte Asanblada Zamudion (IGA) eta Larrabetzun (Hori Bai) baino ez dago, eta Koordinadora horien bien bozeramailea izan litekeela pentsatu genuen. Gainera, Gazte Asanbladarik ez dagoen herrietako gazteria apur bat zirikatzeke tresna ere izan liteke.

Zeintzuk dira urratuta dituzuen eskubide horiek?

Euskal Herriko gainontzeko tokietan gertatzen den bezala, gazteoi etxebizitza izateko eskubidea ukatzen zaigu, eta hori urraketa-rik nabarmena da. Baina beste batzuk ere badude: lana, Txorierrin ia dena pribatizata egotea, aisialdia betetzeko ia alternatibarik ez izatea, garraio eredu egokia ez edukitzea... Gai asko jarri genituen mahai gainean, izan ere, gazteoi alternatibarik eskaintzen ez digun eskualdea garatzen dabiltza. Txorierrin bizi, lan eta aisialdi duina betetzeko ez dugu inolako bermerik. Ez dugu erabakiak hartzeko inolako ahalmenik, eta guretzako gauzak egiten ari dira, baina gu barik. Eskubide urraketa horien artean, etxebizitzarena aldarrikatuko dugu bereziki.

Gero eta etxebizitza gehiago eraikitzen ari da; hala ere, gazte gehienek horietako bat

Erregeen Egunean gazte batzuek Derioko kale nagusia okupatu eta bertan “euren etxea” eraiki egin zuten. Ekimen horrekin kale gorrian bizi izatea baino beste erremediorik ez dutela adierazi zuten. Gazte horiek Txorierriko Gazte Koordinadoraren (TGK) kideak ziren.



eskuratu ezinik jarraitzen duzue...

Txorierrin egiten dabiltzan etxebizitzak ez dira gazteontzat. Ehun milioitik gorako txaletak dira, edo luxuzko etxebizitzak... Eta gazteoi eskaintzen diguten alternatiba bakarra babes ofizialeko etxebizitzak dira. Baina, hala ere, gazte gehienok ezin dugu horietako bat eskuratu, ez ditugulako betetzen eskatzen zaizkigun baldintzak. Institu-

zioen aldetik inplikazio falta dagoela uste dugu.

Gazteok behin-behinekotasunean egiten dugu lan, edo ikasten gabiltza, eta ezin diogu aurre egin gaur egungo etxebizitzaren ereduak dakarren gastuari. Gai honen inguruan iritzi asko egongo dira; gure ustez, oso arazo kezagarria da.

Zein da zuenetariko baten profila?



Koordinadoraren barruan hainbat errealitate daude: lan egiten dutenak, ikasten dabiltzanak, gurasoei bizi direnak, gurasoen etxetik kanpo bizi direnak... Txorierriko industrian lan egiteko aukerak egon, badaude, baina behin-behineko kontratuekin... Eta asko atera behar dira kanpora, lan egitera zein bizi izatera. Alokairu sozialak, adibidez, ez dira bultzatzen.

Eusko Jaurlaritzak 210 euroko dirulaguntza hasi da ematen pisua alokatze-ko, baina alokairua ezin da 700 euro baino garestiagoa izan. Alokairu gutxi daude diru horren truke. Hori zer da, partxe bat?

Ezta hori ere. Euren aurpegia garbitzeko egin dute. Horrelako arazo bat konpontzeko, egin behar den lehenengo gauza espekulazioa albo batera uztea da, eta gazteoi benetako alternatiba bat proposatu. Etxebizitza duina izateko eskubidea guztiok dugu eta ezin dute horrekin espekulatu.

Beste eskualde batzuetan bezala, Txorierriin altxatzen diren etxebizitzetatik asko, hutsik gelditzen dira, eta beste asko bigarren etxebizitzatzat erabiltzen dira. Beste alde batetik, pisuekin batera txaletak ere eraikitzen dituzte. Horiek zer dira, gazteontzako txaletak? Babes ofizialeko txaletak? Nortzuek erosiko dituzte? Txorierri oso era erakargarri batean saltzen dabilta: lasaia dela, berdez inguratuta... Eta azkenean, lo-hiri bihurtuko da. Eta masifikatu ere egingo da, eta Bilbo Handiko luzapena izango da. Nortasuna galduko du, ziur.

Derion antzeztu zenuten parodiaren bidez, duzuen alternatiba bakarra argi azaldu zenuten...

Bai, edo okupatzea, eta hori delitua da eta zigor ekonomiko handiak ekartzen ditu; edo kale gorrian bizi izatea.

Zeintzuk dira zuen asmoak epe laburrean?

Gure kezka guztiak besteei jakinaraztea eta horien aurrean alternatibak proposatzea, lan egitea, aurrera jarraitzea... Era berean, zabaltze lanari garrantzi handia emango diogu, gure helburua ahalik eta gazte gehienek koordinadoran parte har dezatela da-eta; erabakiak askok har ditzagula, ez gutxi batzuek. Kontzientziatze lana ere egingo dugu, gazte guztiek jakin dezaten etxebizitzaren eskubidea guztiona dela, eta ez soilik batzuenena. Posta elektronikoko helbidea dugu: txorierrikgaztekoordinadora@gmail.com. Nahi duenak bere iritzia eta proposamenak bota ditzake bertara. Gainera, sare bat osatu nahi dugu, gure bilera eta ekitaldien berri emateko Txorierriko gazte guztiei.



**HAKAMILLOIA
ALBERTO**

Tratamiento de aguas residuales
Tel: 945 22 48 48
945 22 48 48 (centralita)

AMARILLO ALTEA

PROYECTO DE RECONSTRUCCIÓN DEL MONUMENTO DE LA ALTEA




BAR BIDE-BI

Barra de bidebi
Barra de bidebi

Barra de bidebi

Barra de bidebi

Barra de bidebi

ZAMUDIO MOTOR

Barra de bidebi

Barra de bidebi

Barra de bidebi

Barra de bidebi

**ESTILISTA
EVA ARDINES**

Barra de bidebi

Barra de bidebi

Barra de bidebi

Barra de bidebi

BAR TXIKI

Barra de bidebi

Barra de bidebi

Barra de bidebi

Barra de bidebi

Bar TRIPPY

Barra de bidebi

Barra de bidebi

Barra de bidebi

Barra de bidebi

ZAMUDIO MOTOR

Barra de bidebi

Barra de bidebi

Barra de bidebi

Barra de bidebi

BARRA DE BIDE-BI

Barra de bidebi

Barra de bidebi

Barra de bidebi

Barra de bidebi

SANTI MAMI

Barra de bidebi

Barra de bidebi

Barra de bidebi

Barra de bidebi

LEJARRRENE JALETXEA

Barra de bidebi

Barra de bidebi

Barra de bidebi

Barra de bidebi

PATKI

Barra de bidebi

Barra de bidebi

Barra de bidebi

Barra de bidebi



Laugarren saria. "Tripaki aritzan" (*Hydnum repandum*), Patxi Arias.



Bigarren saria. "Olan" (*Boletus edulis*), Nieves Canuto.



Lehenengo saria. "Nívea en los hayedos", Jon Viguera.

Menditik argazkira

Mendiak eskaintzen dizkigu eta guk inongo erreparo barik hartzen ditugu. Lapi-koan edo zartaginean prestatzea, euren zaporeaz gozatzea... da saria menditik zehar perretxikotan ibili ondoren. Baina euren berezko edertasuna natura-inguruan ere mirets dezakegu. Urrusti Lezamako mikologia elkarteak I. Argazki Lehiaketa antolatu du abenduan. Lehiaketa horrek gaztetxoek zein helduek mendiak eskaintzen dizkigun aukerez gozatzea izan du helburu. Txapelketan adin ezberdinetako hamasei lagunek parte hartu zuten, eta berrogeita zortzi lan aurkeztu ziren orotara. Urrustikoek oso pozik azal-


du dira txapelketak izandako erantzunarekin, eta aurten hobeto prestatu eta Txorierri osora zabalduko dutela ziurtatu digute.

Jon Viguerak irabazi zuen Mikologiaren gaineko Argazki Lehiaketa eta saritzat argazki-makina digitala eman zioten. Bigarren saria Nieves Canutok eskuratu zuen eta emakumeak 2 Gbko Mp3 erreproduzigailua jaso zuen. "Dennek" eta Patxi Ariasek hirugarren eta laugarren postua lortu zuten, hurrenez hurren. Horiei perretxikotarako otzara bana eta labana bana eman zizkieten. Lauron lana orrialde honetara ekarri dugu.



Hirugarren saria. "Demoniozko ikaragarria" (*Craterellus Cornucopioides*), "Denn".

Garmendia ardoak



Urruti, 7-49
30100 Leizor
Tel./Fax: 94 423 40 40

GUTIERAN
VITICULTORES DE PAMPLONA, S.L.



Urruti, 7-49
30100 Leizor
Tel./Fax: 94 423 40 40

HORTZ KLINIKAK



Mein Zahnklinik



Urruti, 7-49
30100 Leizor
Tel./Fax: 94 423 40 40

OPTIKA IKUSILAN




Urruti, 7-49
30100 Leizor
Tel./Fax: 94 423 40 40

TALLERES JUAN ANDRÉS



Urruti, 7-49
30100 Leizor
Tel./Fax: 94 423 40 40

Merceria Karmele



Urruti, 7-49
30100 Leizor
Tel./Fax: 94 423 40 40

Euskal Herriaren atzerabegirakoa



• RebeldeMule
www.rebeldeemule.com

Arrieta 10, 48001 Leizor, Bizkaia (Euzkadi)
Tel: 945 40 10 10

Euskal Herria: Retrospectiva de un pueblo



Trabaja el Web y el Multimedia en PageMaker



Eguzkia eta ilargia, Jaungoikoa eta deabrua... Txanpon guztiek bi alde dituzte eta Internetetik dabilena ez da salbuespena. Emule programa oso famatua da internauten artean, filmak, musika edo softwareak deskargatzeko aukera ematen baitu. Bere “alde ilunak” RebeldeMule du izena, eta bertan Euskal Herriari buruzko bilduma bat prestatu dute, *Euskal Herria: herri baten atzerabegirakada* izenburupean.

Bilduma horri politika eta gizarte arloko zenbait ikus-entzunezko dokumentu batu zaizkio: besteak beste, His-

toria Kateak egindako *III Reicheko morroi euskaldunak*, Julio Medemen *Euskal pilota: larrua harriaren kontra* eta Iker Trebiñoren *Salda badago: Euskal Rockaren hasiera*. Filmen zerrendaren aurretik sarrera txiki bat eskaintzen du RebeldeMulek, eta Euskal Herria zer den azaltzen du bertan.

RebeldeMulek gutxiengoan gai politikoak eta sozialak zabaltzeko nahi ditu. Sortzaileen iritziz, Internet tresna merkea eta egokia da kultura libre zabaltzeko eta denen eskura jartzeko, eta horregatik sortu dute RebeldeMule.

PanImages euskaraz

Euskara gero eta gehiago zabaltzen ari da Interneten. Adibidez, PanImages irudi-bilatzaile eleaniztuna euskaraz kontsulta daiteke honezkero. Orain arte gure hizkuntzan egin zitezkeen bilaketak, baina webgunea bera ezin zen euskaraz bisitatu. Orain, ordea, nahikoa da klik bat egitea, euskaraz agertuko zaigu dena, Borja Ariztimuño itzultzailearen lanari esker.

Bilatzaile horrek aukera ematen du Googlek eta Flickrk eskaintzen dituzten

argazkien artean murgiltzeko. Beraz, aurreko bietan bilatzen duenez, PanImages erabiliz gero, irudi gehiago izango ditugu eskura.



**MARMOLERIA
TXORIERRI
MARMOLDEGIA**

Sakabide eta bainugeletako harriak
fotusak, artariak eta ailerriak


Tamara Capelli Irujo, P. 38 - nabea 3
48170 ZAMUDIO (BIZKAIJA)
Tel: Fax: 94 608 01 41 - 3



DE FERRI E INNOVATION SYSTEM
ZAMUDIO

Medioambiente
Teléfono / Fax: 94 608 01 41 - 94 608 01 42 (Ext. 404)

GORBEIA MERTZERIA



Corbata negra 7
gramos
14.900.000

Bocateria
30.000.000
Pizzeria



WELLS WITKOWSKI JAKITUBA LA TEKNIKAKI ZIKIOA

EMULIO

TLA 14.900.000

BRONKHIA - TROPH - DINDA

Ruben

Leizorako Leizorako Plaza, 5 - Tel: 94 452 14 49
Arrieta (Bizkaia)

**LEANDRO
LANDETA**



TIARACITEGIA-ORDAITEGIA
Guz. Euzk. 1 - Tel: 94 452 10 10 - 48 707 04 10 11



Arkaitz Ormaetxe 'Pika'

“Gaur egun ez dira diskoak saltzen inon”

Baga-Biga produkzioak / Musika ideak, musikarekin zuzenean lotutako enpresa gazte bat da. Musika da euren zerbitzuen ardatza eta izateko arrazoia. Arkaitz Ormaetxe 'Pika' diskoetxean dabil lanean.

Txorierriko zein herritan dabil gusturago zure bihotza?

Hogeita zortzi urte ditut eta une honetan Larrabetzun bizi naiz. Orain dela 5 urtera arte Lezaman bizi izana, baina lagun gehienak Zamudion dauzkatzat, gurasoak ere Zamudiotik ibili dira..., beti eduki dut nahaste handia..., behar bada zamudioztarra kontsideratzen dut neure burua, edo, gura bada, Txorierriko ekialdekoa.

Nondik dator zure musika zaletasuna?

Euskal musika beti gustatu izan zait, baina mundu honetan sartzeko iniziatiba edo bultzada Zamudioko Gazte Asanbladatik datorkit, urtean behin gure jaialdia prestatzerakoan nire konpromisorik handiena kontzertua prestatzea zelako. Zeregin horretan, talde berriak ezagutzerakoan eta abar, erroilu horretan sartu zitzaidan gogo. Gero, zorionez, Agus Barandiaran Ur-

gabe musika taldeko abeslaria ezagutu nuen eta, musika munduko enpresa bat sortu gura zuenez, berarekin lanean hasetako aukera eman zidan. Enpresak bi urte daramatza eta ezin izan nintzan berarekin hasi atxilotu nindutelako. Espetxetik irten da gero, 7 hilabete daramatzat berarekin lanean.

Non dago enpresa hori eta zer egiten du?

Baga-Biga musika enpresa Mungian dago kokatuta eta gauza asko egiten ditu arlo horretan. Labur esanda, gure webgunean (www.baga-biga.com) agertzen den moduan, “diskoetxea, kontzertuen antolakuntza, taldeen *managementa*, soinu eta argi ekipa profesionalen alokairua, kontzertu aretoen gestioa, promozio musikala, grabaketa estudioa..., denak dauka tokia gure katalogoan, kontatu iezaguzu zein den musika munduan zure beharrezana eta guk eran-

tzuna emango diogu, beti ere entzulearengana heltzeko bitartekari onenak zure esku ipiniko ditugularik”.

Zuen lanaren datu zehatzagorik?

Momentu honetan diskoetxea asko potentziatzen ari da, denak erotuta ote gauden esan arren, gaur egun diskoak ez baitira saltzen Euskal Herrian ez inon. Diskoetxe ezagun batzuk desagertu egin dira (Esan ozenki...) eta gu ostera, enpresa txikia gorantz doa.

Zein da horren sekretua?

Behar bada, beste diskoetxe batzuk diskoak kaleratzera bakarrik dedikatzen direlako eta guk ostera arlo guztiak jorratzen ditugulako izan daiteke. Diskoetatik aparte, kontzertu asko antolatzen dugu, Bizkaian batez ere (Mungia aldeko herri guztietako jaietakoak eta abar), eta taldeei zuzenean jotzeko aukera ere ematen diegu eta asko baloratzen dute hori, zuzenekoak ematen baitio indarra taldeari. Gero talde zerrenda bat daukagu eta euren errepresentazioa edo *managementa* egiten diegu, euren kontzertuak lortu, antolatu eta koordinatuz, batez ere, eta baita euren lana ezagutzea emanez eta promozio-birak antolatuz ere.

Adibidez, zer ari zarete promozionatzen une honetan?


Oraintxe Gose taldea ari gara promozionatzen, Durangoko Azokan atera zuten bigarren diskoa. Talde diferentea da Euskal Herrian. Betiko trikia nahasten dute musika teknoarekin eta badirudi proiektu berri hau indarra hartzen ari dela.

Zeintzuk dira kaleratu dituzuen azken diskoak?

Negu partean argitaratu ditugunak izan dira Abadiñoko Muted taldearen bigarren lana, Gatikako Noizeanbehin talde gaztearen bigarrena, Gose taldearena, Arrasateko Deskontrol, eta Donostiako Acido C eta In-significantes taldeena. Orain arte katalogoan “metal” arloko taldeak izan ditugu gehienbat. Aurrerantzean gure helburuetariko bat katalogoan musika klase guztietakoak edukitzea da, katalogo zabala gura dugu.

Bizi ahal da modu duinean musikatik?

Benetan musikatik, hau da musikariak direnak, lau katu bizi dira. Gu ez gara musikariak baina musikaren inguruko kudeaketatik bizi gara, bizi edo... Azken batean lan egiten dugu eta hortik bizi gara.



GR-280 Uribe Kosta: Zamudiotik Unbera

Arroeta mendi taldeko lagunek GR-280 Uribe Kosta ibilbidea-
ren zati bat egin eben aspaldi: Zamudio-Zamudio zatia. Orain
dala gutxi, Zamudio eta Unbe bitarteko zatiagaz ausartu dira eta
ibilbide horren barri emon deuskue, eguraldia ona bada, geuk
be egin daigun.

Argazkiak: Arroeta Mendi Taldea



Zamudiotik urten eta Teknologia Parkean
sartuko gara futbol zelaletatik. Bidegorria
hartuko dogu eta, ha amaitzen danean, pis-
tatik jarraituko dogu aurrera. Lehenengo
bidegurutzean bidezidor bat topatuko
dogu ezkerrean. Bidezidor hori hartu
eta, muino bat igo eta jaitsi ostean, hurren-
go bidegurutzean helduko gara. Eskumako
bidea hartuko dogu eta aldats luze eta
zuzen bati ekingo deutsagu mendikaterai-
no heldu arte (45 min).

Mendikatean GR marka zuri-gorriak
ikusiko doguz lehenengo aldiz. Ezkerre-
ra joko dogu, Berreaga mendirantz (366 m)
egiteko (1 h). Mendiaren iparraldetik

Arirituganara helduko gara eta han
asfaltoagaz egingo dogu topo. Asfal-
toa bidelagun izango dogu Artebaka-
rraraino (1 h, 40 min).

Mungiarako errepidea guru-
tzatu eta Erdikoetxe eta Arkotxa-
tik igoko gara, Goikoganara joa-
teko (Mantuliz). Mendikatetik
jarraiturik, Lauromenditik pa-
satuko gara, harik eta Lauroe-
tako errepidera eta San Migel
ermitara heldu arte (2 h,
30 min).

Indarrak barritu ostean, Fanarraga-
mendi eta Unbeganarantz (299 m) egingo
dogu (3 h, 15 min). Karabezutik jaitsiko
gara, Unberako errepidea hartzeko. GR
markak alde batera utziko doguz –hu-
rrerango baten Sopelantarantz abiatuko ga-
ra–, eta Akarlandatik (3 h, 15 min) jai-
tsiko gara Erandioko Landaraino (4h,
30 min). Zamudiora itzultzeko, auto-
busa hartuko dogu.

Gutxi gorabeherako denbora:

4 ordu, Unbera;


5 ordu, Erandioko Landara

Zailtasuna:

erreza



“LAIA HOTEL MUSEOA”



Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko
bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu.
Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal
izango duzu, antzinako errezetak zein sukal-
daritzarik berritzaileena.

Fitness eta spa zentroak relax zirkuitu
hau eskaintzen ditu: sauna, vaporiuma,
jacuzzi, dutxa inguratzailea eta infragorri-
ko ohea.

Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Aurreko galderaren erantzuna:

Urrusti taldekoek
Irabazlea:
Imanol Franco



LEHIAKETA

Asmatu galdera eta bi lagunentzako aste-
buru batean gau bat pasa Laia Hotel Mu-
seon, gela bikoitza, buffet-gosaria eta Spa
zirkuitua, barne.

Hilabete honetako galdera zera da:

**Nork sortu nahi
du nagusien
dantza taldea?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehe-
nago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikor-
txori@yahoo.es), edota postaz (**AIKOR!** aldiz-
karia, Aresti kalea 2, 48016, Zamudio).

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

NAGUSIAK

Antzararen bidea

J. Muñoz

Zu bezain azul

K. Jaio

Etxearen negarra

F. Juarista

Irene, Tempo di adagio

P. Aristi

Diotenez

K. Linazadoro

HAUR ETA GAZTE

Mahemoren ametsa

I. Vi-Makome

Ilargi dut izena

F. Martos

Muki berdearen sekretua

A. Dueso

Nire ahizpa Aluita

A. Kazabon

Sorgin bat bizikletan

E. Abeyà

Suzko zaldia

F. Casallerrey

MUSIKA

Bizkaiko Trikitixa

Xabi Aburruzaga

Txikia izanik

Half the perfect

world

Madeleine Peyroux

The very best of

Diana Krall

The calling

Mary Chapin

Carpenter



Diana Krall.

Argazkia: Sam Taylor Wood

DENBORA PASA

LETRAZOPA

G	A	I	G	U	R	G	U	X	E	I	F	H
X	T	S	X	F	Ñ	B	O	U	H	A	U	Y
H	G	P	S	A	O	R	U	A	O	E	Z	P
F	Z	I	O	N	T	E	B	P	M	Y	J	I
G	T	N	J	D	Ñ	R	O	F	U	Ñ	T	L
Y	E	U	D	N	A	X	E	D	Ñ	B	K	O
F	A	E	Ñ	A	T	S	A	G	L	S	A	E
P	R	I	D	H	U	B	G	X	J	G	N	I
S	L	B	Y	K	X	P	M	A	T	X	Z	S
K	J	Z	Ñ	B	L	N	K	D	K	E	A	A
E	S	R	I	O	M	Y	X	L	Y	M	R	K
R	P	O	L	M	O	A	N	P	M	H	J	A

F	A	E	Z	T	N	I	R	R	I	G	F	D
H	Y	F	T	X	G	E	A	Ñ	D	B	B	U
S	O	A	P	E	I	H	D	G	S	E	A	E
P	F	G	P	S	O	R	E	U	P	M	L	O
G	R	L	O	T	L	T	X	I	J	P	Z	Y
Ñ	U	J	N	E	T	H	R	S	T	D	I	A
K	R	H	G	A	N	T	X	O	A	H	M	E
R	F	S	R	I	Y	I	N	J	U	I	L	K
G	A	J	M	N	B	N	N	B	S	L	B	I
E	X	P	Ñ	K	Ñ	E	K	A	I	N	T	X
Y	Z	E	O	Z	D	X	L	M	Z	J	K	U
M	A	N	T	I	L	L	E	A	B	M	K	P

Ea gai zaren oraingoan 7 **arbol**en izenak aurkitzen* goiko letrazopan. Kontuan hartu egizu Txorierrin esaten dan eran idatzita dauzela.

* "Derioztarren euskara" liburutik jasoak.

Ezkerraldean **AIKOR!** 66. zenbakiaren erantzuna. Txarribodan erabiltzen diren berbak.

PUKSI BEPINA d-generazioa



Antzerkia eta filmak

Loiu

–Mari eta azeria antzezlan (3 urtetik 6 urtera bitarteko umeentzat). Otsailaren 13an, 17:30ean, liburutegian.

Zamudio

–Ipuin kontalaria, Apika taldearen esku-tik. Otsailaren 23an, 12:00etan, liburutegian. Izen-ematea: urtarrilaren 28a baino lehenago.

Erakusketak

Sondika

–Alberto Palomera margolariaren teknika mistoa paperean (BBK-k utzita). Otsailaren 4tik 26ra bitartean, liburutegiko Erakusketa Aretoan.

Irteerak

Sondika

–Valentziara bidaian izen-ematea: otsailaren 4tik 12ra. Bidaia martxoaren 18tik 24ra bitartean. Argibideak, udaletxean.

Zamudio

–El método Gronholm antzezlan ikustera. Otsailaren 12an, 20:00etan, Arriaga Antzokian. Izen-ematea: otsailaren 11 arte. –Valentziara bidaian izen-ematea: otsailaren 12a arte. Bidaia martxoaren 18tik 24ra

bitartean. Argibideak, udaletxean.

–Alto Campoora, otsailaren 17an. Arroeta mendi taldeak antolatuta.

–Candanchura. Otsailaren 29an eta martxoaren 1ean eta 2an.

Lezama

–Valentziara bidaian izen-ematea: otsailaren 4tik 12ra. Bidaia: martxoaren 18tik 24ra bitartean. Argibideak, liburutegian.

–Somiedoko Parke Naturalera irteeran izen-ematea: otsailaren 27a baino lehenago. Irteera martxoaren 19tik 24ra bitartean. Gailur mendi taldeak antolatuta.

Larrabetzu

–Izenaduba basoa Olentzeroren etxera umeentzako irteera. Otsailaren 9an.



Valentzia

Kirola



Argazkia:
Karlos Ojanguren

Sondika

–XX. Areto-futbol Txapelketaren hasiera: urtarrilaren 27an. Partidak asteburu goizetan izango dira Goronda Beko kiroldegian.

Bestelakoak

Sondika

–Sondikako XX. Jaietako Kartel Lehiaketa. Oinarriak: otsailaren 18tik aurrera udaletxean eta liburutegian. Lanak aurkezteko epea: martxoaren 28ra arte.



–Zuhaitz Eguna, otsailaren 24an.

Loiu

–Hizkia kolokatu, 6 urtetik gorako umeentzako ekitaldia. Otsailaren 27an, 18:00etan, liburutegian.

Zamudio

–Santa Ageda, otsailaren 4an.





GARAIOLTZA, S.A.

INDUSTRIAK ERABILTZEAK

LEZAMA

ITXERBITZAK, MERKATUTZA-LOKALAK ETA GARAJAK

LEHEN MAILAKO ERABILTZEAK, LEHENIK HANTAKI,

ORDAINTZEKO ERABILTZEAK BARDIAK







TF.: 94 455 50 19

Urduloren zuzena, 128 (bidea)

Lezama (Bizkaia)

OSO ALTU EGITEN DUGU HEGAZ

Gure helburua sektore aeronautikoan liderrak izatea da



Gidaltzaeren, gure pertsonen inplikazioaren eta lubrikantza-jarraitutasunaren bitartez, Inerjia eta Injeksiotarakiko errespetuarekin. Beti ere, Bikoiztasuna erregela bilatuz.



GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.



Enferentziako

txartela:

Finantza-txartelen

erabatasun

guztiek in eta

galnera...

Bidaia-

asistentziako

doako asgurua

abantailak era

guztietako 2.000

establizimendutan.

Deskontuak

eruniku usen

izateko gitarra.

Kontsultatu

BBK26 gida,

www.bbk.es

orrian